Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3845

EBAZPENA, 2010eko maiatzaren 31koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, ehizan jarduteko gaitasuna eta ezagupenak egiaztatzeko 2010eko lehenengo deialdia gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda onestekoa.

Ehizan jarduteko gaitasuna egiaztatzeko azterketetarako 2010eko lehenengo deialdia egin zuen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2010eko otsailaren 22ko Aginduaren zortzigarren puntuak xedatutakoa betez (EHAA, 60. zk., 2010eko martxoaren 30ekoa), eta epaimahai kalifikatzaileek proposatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onetsi egitea ehizan jarduteko gaitasuna eta ezagupenak egiaztatzeko 2010eko lehenengo deialdiko azterketak gainditu dituzten izangaien zerrendak. Zerrenda horiek lurralde bakoitzeko azterketak epaitu dituzten epaimahaiek egin dituzte.

Bigarrena.– Zerrenda horiek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundietako iragarki-oholetan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren web orrian (www.nasdap.ejgv.euskadi.net) jar daitezela agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gorako errekurtsoa jar diezaiokete Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 31.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

3845

RESOLUCIÓN de 31 de mayo de 2010, de la Directora de Agricultura y Ganadería, por la que se aprueba la relación definitiva de aspirantes aprobados de la primera convocatoria para 2010 de pruebas de acreditación de la aptitud y conocimiento para el ejercicio de la caza.

En cumplimiento de lo dispuesto en el punto octavo de la Orden de 22 de febrero de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca (BOPV n.º 60, de 30 de marzo de 2010), por la que se realiza la primera convocatoria de pruebas de acreditación de la aptitud para el ejercicio de la caza en el año 2010, y a propuesta de los Tribunales Calificadores correspondientes,

RESUELVO:

Primero.– Aprobar las relaciones de aspirantes aprobados en las pruebas de acreditación de la aptitud y conocimiento para el ejercicio de la caza elevadas por los respectivos Tribunales territoriales encargados de juzgar las pruebas de la primera convocatoria para el 2010.

Segundo.– Ordenar la publicación de las relaciones antedichas en los tablones de anuncios de las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y en la página web del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco (www.nasdap.ejgv.euskadi.net).

Tercero.– Contra la presente Resolución podrán los interesados interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de mayo de 2010.

La Directora de Agricultura y Ganadería,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.